JESUS ATECA ACEBO (1. guztira 1)
INGURUMEN TEKNIKARIA/TECNICO/A DE MEDIO AMBIENTE
Sinaduraren data: 19/02/2026
HASH: 1570c85589e07b409772014d30fd290d
Getxo

2026AN ETA 2027AN GETXO UDALERRIAN TOKIKO 2030 AGENDA GARATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOA KONTRATATZEKO PLEGU TEKNIKOA

Plegu honetan oinarrituta egingo den kontratuaren xedea izango da kontratatzea 2026-2027 aldian tokiko 2030 Agendari lotutako ingurumenerako laguntza teknikoa.

1. KONTRATAZIOAREN XEDEA

Lortu nahi den lanaren helburu orokorra da 2026. eta 2027. urteetan Getxoko Udalari laguntza teknikoa ematea, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin (2028 eta 2029), eta lan hauek barne hartuta:

- Kudeatzea eta dinamizatzea Ingurumeneko Tokiko Foroaren, Hondakinen Foroaren, 2030 Agendako arloen arteko mahaiaren, Jasangarritasun Energetikoaren Batzordearen eta 2030 Agendarekin lotutako edozein lantalderen saioak.

- Tokiko 2030 Agendako (2024-2027) ekintza-planaren jarraipena, ebaluazioa eta ezarpena. Urtean txosten bat egitea.

- Tokiko iraunkortasun-adierazleak eguneratzea. Bi urtean behin txosten bat egitea.

- Tokiko iraunkortasunari buruzko txostenak egitea, Ingurumen Arloak edo gobernu-taldeak eskatuta.

- Herritarrei eta Udaleko funtzionarioei berri ematea tokiko 2030 Agendan egiten ari diren lanei buruz, webgunearen bidez edo sare sozialen bidez.

- Aholkularitza eta lan osagarriak Getxo udalerrian erosketa berdea hobetzeko eta garatzeko.

2. KONTRATISTAREN KAUDIMENA GUTXIENEKO KAUDIMENA

Kontratu honen xede den zerbitzuan kalitatea ziurtatzeko, enpresa lizitatzaileei gutxienez baldintza hauek eskatuko zaizkie:

<u>Kaudimen ekonomikoa</u> honela egiaztatuko da:

Urteko negozio-bolumena 54.545,46 euro edo gehiagokoa izatea azkeneko hiru (3) urte bukatuetako batean.

Lizitazio hau ez dator bat kontratisten inolako sailkapenarekin.

<u>Kaudimen teknikoa</u> honela egiaztatuko da:

- Azken hiru (3) urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda aurkeztuko da, eta bertan agertuko dira zenbatekoak, datak eta hartzaileak, publikoak edo pribatuak izan. Beharrezkoa izango da antzeko lanak egin izana, aipatutako epealdiko gauzatze-urterik handienean urteko zenbateko honetan, gutxienez: 22.000 euro.
- Zerbitzuari atxikitako langileek gutxienez 3 (hiru) URTEKO esperientzia egiaztatu beharko dute kontratuaren xedearekin lotutako zereginetan. Hori egiaztatzeko, erantzukizunpeko adierazpen bat egingo da, eta curriculum vitaeekin batera helaraziko da.

3. EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baliozkotze Kod.: 527T6DC5YFNQRTW472SWGAE4K
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 4

3.1. Papera murriztea eta erabiltzea: Idazteko prozesu osoan, paperaren eta kopia inprimatuen erabilera murriztuko da eta, ahal dela, euskarri elektronikoak erabiliko dira jardueraren izaerak ahalbidetzen duenean. Euskarri elektronikoan egin ezin diren barne eta kanpo partaidetza-jarduera guztietan erabili beharko da % 100ean birziklatutako papera (gutxienez % 65 kontsumo ondokoa) edo birziklatu gabeko papera (gutxienez % 20an zuntz birziklatuekin edo basoen kudeaketa jasangarriko zuntzekin).

Dokumentuak inprimatu behar badira, honela egingo da: bi aldeetara, zuri-beltzean (kolorea bakarrik erabiliko da edukia zuri-beltzean interpretatu ezin daitekeenean), alde bakoitzeko bi orrialde edo gehiagotara (egokia denean eta ulergarritasuna bermatzen denean), gutxieneko azaleztapenarekin eta plastikozko estalkirik gabe (birziklatzea errazteko).

3.2. Ekitaldiak antolatzea. Antolatzen diren bileretan edo aurkezpenetan erabiliko diren bitartekoak eta baliabideak bat etorriko dira berotegi-efektuko gasen isuriak arintzeko politikekin. Horrek esan nahi du, adibidez, ez dela erabilera bakarreko elementurik banatuko lan-mahaietan, sortutako hondakinak (halakorik balego) gaika bilduko direla eta abar.

Egikaritze-baldintza berezi horietako edozein ez betetzea kontratu prezioaren % 10eko zenbatekoarekin zehatuko da.

4. LAGUNTZA TEKNIKOAREN ZEREGINAK ETA EGINKIZUNAK

4.1. Hauek izango dira laguntza teknikoaren zereginak eta eginkizunak, Ingurumeneko Tokiko Foroaren, Hondakinen Foroaren, 2030 Agendako arloen arteko mahaiaren eta Jasangarritasun Energetikoaren Batzordearen saioak kudeatu eta dinamizatzeari dagokionez:

Aurkezten den eskaintzak kontuan izango du urtean gehienez hamar bilera egingo direla Ingurumeneko Tokiko Foroan (uztailean eta abuztuan ez da bilerarik egingo) eta Hondakinen Foroan hiru hilean behin egingo direla.

Bilerak dinamizatzeko zereginek artean hauek egongo dira:

- Dagokion deialdia egitea.
- Foroko kideei beharrezkoa den dokumentazioa bidaltzea.
- Bilerako akta egitea.
- Bileretako hizlariekin eta foroko kideekin koordinazio-lanak egitea.
- Bilerak dinamizatzea.
- Laguntza teknikoa koordinatzeko bilerak Ingurumen Arloko teknikariekin eta, behar izanez gero, beste udal-arlo batzuetako gainerako teknikariekin.
- Ingurumen Arloa arduratuko da Hondakinen Foroan jorratuko diren gaiak erabaki eta deialdiak egiteaz.

4.2. Tokiko 2030 Agendako (2024-2027) ekintza-planaren jarraipena, ebaluazioa eta ezarpena. Urtean txosten bat egitea.

Baliozkotze Kod.: 527T6DC5YFNQRTW472SWGAE4K
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 4

Laguntza teknikoak ekintza-planeko ekintzen ezarpenaren jarraipena egingo du. Hala, urtean txosten bat egingo du, eta, bertan, tokiko 2030 Agendako (2024-2027) ekintza-planaren ezartze-maila jasoko da, ekintza bakoitzaren aurrerapena edo atzerapena zehaztuta. Txosten hori Ingurumeneko Tokiko Foroaren saio batean azalduko da. Era berean, gobernu-taldeari aurkeztuko zaio, hala eskatzen bada.

4.3. Tokiko iraunkortasun-adierazleak eguneratzea. Bi urtean behin txosten bat egitea.

Laguntza teknikoak bi urtean behin txosten bat egingo du Getxoko tokiko iraunkortasun-adierazleen kalkuluarekin. Oinarri gisa hartuko du Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren eta IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren metodologia EAEko adierazleak kalkulatzeko.

4.4. Tokiko iraunkortasunari buruzko txostenak egitea, Ingurumen Arloak edo gobernu-taldeak eskatuta.

Laguntza teknikoak egingo ditu Ingurumen Arloak edo gobernu-taldeak eskatzen dizkion tokiko jasangarritasunari buruzko txostenak.

4.5. Herritarrei eta Udaleko funtzionarioei berri ematea tokiko 2030 Agendan egiten ari diren lanei buruz, webgunearen bidez edo sare sozialen bidez.

Lizitatzaileek barneko eta kanpoko partaidetza-programa bat aurkeztuko dute tokiko 2030 Agendari dagokionez, webgunearen, komunikabideen edo egokitzat jotzen dituzten bitartekoen bidez.

4.6. Aholkularitza eta lan osagarriak Getxo udalerrian erosketa berdea hobetzeko eta garatzeko.

Laguntza teknikoak Udaleko Ingurumen Arloari proposamenak egingo dizkio erosketa publiko berdean aurrera egiteko. Horrez gain, eragindako arloekin bilerak egingo dira, baita abian jartzen diren jardueren berrikuspena ere. Eskaintzan ahalik eta gehien zehaztuko da kapitulu honetan egin beharreko lanak nola egingo diren.

5. IRAUPENA

Adjudikazioa indarrean sartuko da kontratua sinatzen den unean eta bi urteko iraupena izango du, hasiera batean. Bi urtez luzatu ahal izango da, urtez urte, eta iraupen osoak, luzapenak barne, ezingo du lau urte baino gehiago iraun. Orduan, lehiaketa berri bat egin beharko da.

6. ESKAINTZA TEKNIKOEN EDUKIA

Eskaintzek, 3. puntuko proposamenak aurkezteaz gain, hauek jaso beharko dituzte gutxienez:

- Lanak garatzeko proposamen metodologiko ahalik eta xeheena.

- Lana egingo lukeen taldearen osaera.

- Barne eta kanpo partaidetza-prozesuaren proposamena.

- Taldeak lan honen xedearekin zerikusia duten lanetan daukan esperientzia.

7. AURREKONTUA

Baliozkotze Kod.: 527T6DC5YFNQRTW472SWGAE4K
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 4

Lizitazioaren aurrekontua urtean 16.500 eurokoa da (% 21eko BEZa barne).

Kontratuaren aurrekontua 33.000 eurokoa da (% 21eko BEZa barne).

8. ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Kontratua esleitzeko, irizpide hauek baloratuko dira:

Automatikoki ebaluatu ezin daitezkeen irizpideak:

Lan-plana, zereginen definizioa eta proposamen metodologikoa, gehienez 39 puntu.

- Tokiko Foroaren eta Hondakinen Foroaren bilerak --- gehienez 4 puntu.
- Tokiko Agendaren ekintza-planaren jarraipena, ebaluazioa eta ezarpena --- gehienez 11 puntu.
- Adierazleen eguneraketa --- gehienez 5 puntu.
- Jasangarritasun-txostenak -- gehienez 3 puntu.
- Barne eta kanpo partaidetza --- gehienez 8 puntu.
- Erosketa berdea --- gehienez 8 puntu.

Baliabide materialak eta giza baliabideak (gehienez 10 puntu).

- Enpresako langileen eta esku hartzen duten eragileen partaidetza proiektuan, sartu beharreko ordu-kopurua zehaztuta --- 6 puntu.

- Teknikariek proiektuarekin lotuta duten esperientzia --- 4 puntu.

Baloratuko den esperientziak kaudimen teknikoan eskatutakoa gainditu beharko du.

Automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideak:

- Eskaintza ekonomikoa (51 puntu).
- Proposamen ekonomikoaren munta administrazio pleguetako formularen arabera baloratuko da.

Baliozkotze Kod.: 527T6DC5YFNQRTW472SWGAE4K
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 4